

Mari Carmen Fundazuri
Lekeitio, Bizkaia

Aurkibidea

Biografia

1985eko uztailan egin zitzaion elkarrizketa hau HABEko "Alfabetatzerako Langaia. Bizkaieratik Baturantz" liburuaren prestaketarako.

Zintak

LEK-017

- **Proiektua:** Alfabetatzerako Langaia. Bizkaieratik Baturantz
- **Elkarrizketatzailea(k):** Erkiaga, Josu
- **Data:** 1985-07-01
- **Iraupena:** 5 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Emalea:** Aita Villasante Euskaltegia, Gernika-Lumoko

Pasarteak

1. Kabanako lana

- **Erref:** LEK-017/001
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

<p>Kabanako lana zein den azaltzen du pausoz pauso.</p>

Transkripzioa

Kabanako kontu´n eingot berba.

Kabania da arraiña enlatateko lekua. Kabanen gagos, gitxi ba gorabera, iruro´tamar pertzona da, orduan, eoten gara batzuk, ogetamabost bat ero enpakaten da beste berrogei bat buru´ kentzen.

Mariñeru´ takarreni´n arraiña portura, fabrikanti´k erosten dau bentan. Fabrikanti´k, eee..., erosten daben arraiña eoten da iru tamañotan klasifikata: aundiija, medianua da txikiña.

Bentatitorren arraiña, kabanara, eitten dabe lau launek deskarga kamiona, da gero, lau laun eoten diras gatza emoten tiñetan arraiñari. Lelengo, arraiña bota orduko tiñara, bota biar da salmuaria, da ori salmueriori ra ur kresala. Tiñatiras egurreskuak da iru tiñak atzen dau milla killo. Tiñetatik arraiña pasaten da maira da an eitten da burua kendu, da orrek gausiorrektauko enportantzijja, arraiñari itxi bijjakona egatia. Maitxitoian arraiña buru´ kenduta pasa bi´r da beste tiñara, da andik tiñatitoia arraiña latara. Latatitoin arraiña doia bagora; bagoia ser dan? Bagoia auxe ra: imiñi parrilla bat gani´n; ipini iru o lau arri ganian, prentzata. Bagoi´tan eoten da arraiña iru o lau arri ganian, prentzata. Bagoi´taneoten da arraiña iru bat illebeta, da gero eitten da andik, latak sarratu. Latak sarratuta gero eitten diras garbittu, sosatzan; tiñan ipini sosia ta garbittu, da gero, bota biosu beste tiña batera, aklarateko; gero, osterabe aklara, da serrautzetan pasa biosu, siku siku ein latia da enkajona. Enkajonaten dosu da bialtzen dosu Jenobara. Jenobara doin latiak ikuitten dau antxoa osua buru´ kenduta.

Beste bire bata, arraiñ txikiña berton geratzen dana. Ori arraiñ txikiñori barrillian sartzen dou "murtzillak" eitteko. Orrek murtzillotiras barrilari ipintten jjakona koro baten forman. Orreri barrilori ein bijjako salmuari´ bota ganera da euki sei illebeti´n antxen geldirik. Sei illebetian dagonian ori barrilli´n, arraiña, ya amaitxu rau bere plazua, da ordun asi biar da filetiagas, da ein biar da atara barrilletik arraiña maira, da laun batek ein bi´r dau trapuaas pasa da beste batek ein bi´r dau artu kutxillu da trapua, da eraiñ, da gero beste batek ein biar dau enpaka, o sea, enpaka da latan sartun arraiña. Sartzen da ori latiori,... ori arraiñori latan, da gero bota bijjako orijjua ganera, da gero, erun biar da makiñara, da makiñatik eitten dabe sarratu, da gero enkajonaten dabe barriro, da gero ori, ba, ixaten da, ba, kanpora ta olan bialtzeko, o sea, kanpora baiño geijjo´, ba, berton ingiru´n geratzen da.

On atunenagas asiko nas. Atuna da, ba, lelengo egin bijjakona, buru
´kendu, gero tiñara bota, garbitzeko, da gero tiñatik, garbittutakuan, jjun
biar dau egosten, kaldera batzutan egosten da, da ipini biar da an eriñotza.
Da andik, egosittakuan, ein biar da maira atara da maijjan eitten da asala
kendu da gero makiñetan ebagi, latan sartzeko.

Fundazuri, Mari Carmen | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com